Antonio Maria Labaien

AGAR-EN SEME...
ISMAEL

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:
http://armiarma.com/liburu-e

Iturria: *Teatro osoa euzkeraz (III),* Antonio Labayen.
La Gran Enciclopedia Vasca, 1977

http://klasikoak.armiarma.com

Egileari buruzko informazioa:
http://zubitegia.armiarma.com/?i=276

AGAR-EN SEME... ISMAEL

Iru ekitaldi

Aurre-Azken solasa
eta
Koru-saillaren kantu, ta dantza dituan
ANTZERKIA

1970 urtean «AGORA»
Teatro-Saria irabazitakoa

1971 - Martxoaren 28
lenengoz Urnietako
EGI-BILLA taldeak
antzeztua

Testamentu zarreko gertakari baten «aggiornamiento» bat besterik ez da «Agar-en seme... Ismael» lan xume au.

Teatrogintzarako Biblia-iturburua oso ugaria izan da beti, bai antziñako egille ta bai oraingoetan. Ez noa izenik aitatzea itzaurre au ez luzatzeagatik.

Teatroa, gizarteari gauzak errez irakasteko lekua da. Begi ta belarrietatik jolasaren bidez eta antzerkiaren indarrez, zuzen sartzen bait zaio barrura.

Stringbergek ederki deitu zuan Teatroa: «Biblia pausorum» Ots!: jende xearen azkurria.

Gure artean, ere, Lardizabalen «Testamentu Zar eta Berriko Kondaira» joan dan gizaldian geien irakurritako liburua izan zan. Idazle zaldibitarrak zionez: «Jaungoikoaren obra miragarrien berriak ugari emango dizkizute, zeñak ikusita zuen biotzak arrizkoak ez badira artuko dute ain ongille onarekin leialak izateko gogo, nere nekearen saririk naiena izango dana». Zuberoko Pastoraletan zortziren bat badira gutxienez Testamentu Zaarretik artutako gaiez landuak: Moises, Abraham, Nabukodonosor, Josue, Sanson eta abar...

Teknika aldetik «Agar-en seme... Ismael» alik eta erarik arruntena aukeratu dut. Zailtasunak jartzea kaltegarri ezik alperrikakoa bait-da gure errietako antzezlari taldeak eroso ikasi ta ager izan aal dezaten.

Joku lagunekin batera Koru sailla sartzen da. Onela, publiko-jende geiena ez bakarrik ikusle baizik

partedun izan dedin. Baiñan ez dut koru-sailla ekintzaren erdian sartu ta naasi nai izan gertakaria ez illuntzearren.

Koru-saillak inguruan diardu irudien uztai ta apaingarri bezela musika dantza ta mintzoz bear dan giroa sortu araziz.

Orain, jenderik aski edo aukerarik ez duten errietan Gertakaria soil-soilik eman diteke musika ta apaingarriak alde batera utzirik.

Berez, gertakarien bizitasuna naiko bait da aditzaile-entzuleek ase-bete eta ez gogaitzeko.

JOKU-LAGUNAK

AGAR

ISMAEL: Mutil gaztea

ABRAHAM: Etxe-nagusia

EZEKIEL: Semea

ERREBEKE (BEKE): Alaba

SOFI (SOFIE!!): Mirabe zaarra

NARZISO: Medikua, gizon gaztea

D. ISAI: Apaiz jauna

KORU-SAILLEKO lagunak

JOANEZ BATAIATZAILLEA ta **ISRAELDARRAK**

(abeslari, dantzari eta abar antzeztokiaren albo edo inguruan jarririk daudela)

Aal baldin bada zine film batez Abraham, Agar eta Ismaelen Kondaira ikus araziko da, orduko giroa sor dedin. Musika doñua, salmuena, adibidez entzun araztea egokia litzake. Eta dantzari talderik izan ezkero, israeldarren jantzian, dantza labur bat egin dezaten ainbat obe.

Au guztia oiala altxa aurretik.

«JAUNA KANTARI
LUR GUZTIA
EGIN ALAITSU
AREN NAIA»

AINTZIN-SOLASA

(Dantza-ta Doñuak bukatutakoan Joanes Bataiatzaillea azaltzen da. Antzeztokia-ren aurre aldean, erdi illunpetan Judeako ikusbegia, Palmondo soil bat edo beste antzeko xeetasun bat dala-ta itxura emanez. Tokia pizkana argitzen joango da ta Joanesen abotsa ozenagotzen...).

JOANES: «Isai igarleak Testamentu zaarreko liburuan esaten digunez. Agar eta Ismael semea Bensa-beeteko basamortutik barrena dijoaz Abrahmek etxetik bialdurik»...

(isilunea)

(Antzeztokiko ertz batetik bestera, igaro bitez laister laister aienaturik).

(Joanesek darrai) Orduko legea gogorra zan emaz-teentzat. Okerragoa oraindik ama-semearen-tzat. Ez orratik gizonezkoentzat... Ankerkeria au

kentzea, bideak zuzentzera Kristo Jainkoaren seme ber-berak etorri bearko du. Bideak atontzera, bai, jende apala goratzeko, eroritakoak jasotzeko.

Oitura zaar eta txar guztiak suntsituz Justizia bete dedin. Noan basomortura, Mesias laister etortzekoa bait-da. Jainkoaren bideak gertutzera.

Testamentu berrian sartu aurretik (bijoa) naasmendu aundiak sortuko dira munduan...

(Antzeztokia berriz illunpe osoan geldi bedi, une ortaz baliaturik Judeako ikusbegia kendu ta beste irudi bat agertzeko leendik gerturik egongo dana: gaur eguneko etxe apain batena. Abrahm jaun aberatsaren etxe-barrua eserleku, arats, argi-mutil, kurtina, ta apaingarriz ondo ornitua. Argia berriz piztutakoan bertan dauden joku-lagunak bere elkarrizketari asiera emango diote).

I. EKITALDIA

(Sofie, mirabe zaarra ta Agar etxe ortan bertan neskame izandakoa berriketan ari dira).

SOFIE: Eta... nola dago Ismaeltxo? Ba zeukanan ikusteko gogoa.

AGAR: Ez zenduke ezagutuko. Beti azitzen ari da-ta. Baita gaiztakerian ere!

SOFIE: Gure Ismaeltxo!

AGAR: Ez ain... txo!... gizon egiñik dago. Jesuiten ikastetxera eraman nuan ezkero asko aldatu da. Ori bai, arropa, liburu, ta beste zer nai gauzetan neuzkan diru guztiak txautu dizkit.

SOFIE: Siñisten diñat. Eta orain... nagusiarengana diru eske atorrenala ere bai.

AGAR: Zer erremedio!

SOFIE: Ondo egiña! Ez den naikoa nagusiak, itzaz gozaturik aurra mundua ekar arazi ta sasian uztea. Berak ere paga dezala larrutik...

AGAR: Ortan Don Abraham ez duzu batere zeken. Eskatzen diodana ematen dit.

SOFIE: Eskatu gabe eman bear liken... Ez den aspaldi iregana biltzen. Ezta semea ikustea joaten ere. Bere-berea din bada Ismael koitadoa... gure laztana! Bazeukanan ikusteko gogoa. Aitak baño geiago apika!

AGAR: Ezin etorri zitekeala gaztigatu zidan etxeko «señora» *(barrungo gelaruntz begiratu keñu egiñez)*... onela gaixo dagon bitartean.

SOFIE: Bai, gero ta okerrago zegon. Ez zekiñat ontatik bizirik aterako ote den.

AGAR: Ain gaizki, beraz?...

SOFIE: Oso gaizki, ta zer gerta ere, Agar, nagusia etorritakoan al dan dirurik geina ken akion. Baezpada ere; ta gero, gerokoak! andrea iltzen bazaio irekin ezkontzeko itza eman ziñan... ta eutsi... kunpli dezala...

AGAR: Aguroegi joan nai duzu izeba Xofi...

SOFIE: Urteen buruan asko ikusia bait naun. Presa izan ziñaten. Agar eta i etxetik bidaltzeko... zera aurra jaio aurretik familian eskandalorik sor ez zedin. Ordaiña orain jaso bear den, bestela beñere ez! neska! *(Abotsa indartuaz)*.

AGAR: Isilago itzegin zazu, izeba, barrendik entzun egingo digute-ta *(belarria adi-adi jarririk)*. Norbait badatorkigula deritzait.

SOFIE: *(Erne jarriaz)* Bai, Nagusia da. Bai, bera da. Pausuan ezagutzen dut, sasoiean dago orain-dik. *(aolku emanez)* Ez zaionala nik esandakoa eskatzez aaztu. *(uste osoz)* Ik izan bear dunan emengo etxekoandre. Ez beste iñork... *(sukal-deruntz abiturik...)* Noan... noan. *(sukaldeko atetik)* Aditzen? Ez aaztu...! *(bijoa)*

AGAR: Zoaz bai... Au larritasuna nerea... *(Bere burua apurtxo bat apaintzen dualarik)* Aspaldi ikusi gabea dut eta... *(D. Abraham sartzen da eta ondoren atea itxiaz Agar-engana doa. Eskua estu bezaio lendabizi, gero arpegian musu ema-nez)*

ABRAH: Ordu txarrean etorri zera, Agar...

AGAR: «Señora»... gaxorik, oso «patal» dagoala bada-kit...

ABRAH: Oso gaizki bai. Medikuaren zai gaude ea zer irizten dion. *(isil-unea)* Zu berriz beti bezin eder, Agar *(berriz musu eman ta maite-maite arpe-gian egiñez)* Ai! *(asperen luzex)*...

AGAR: Ez duzu bada itxura txarrik naiz aspaldi nitaz azturik bazaude ere. Nigana agertu ez zerana badira illabete bi... ta oraindik ez didazu semearengatik galdegin... A eskergaizto zu!... *(musu emanez)*

ABRAH: Ez didazu betarik ematen da. Ismael Jesuiten ikastetxean onik izango dalakoan nago. Ez dago toki txarrean.

AGAR: Toki onean, bai, baiñan ez doarik (debalde)... Zenbat kostatzen zaidan neronek ere ez dakit, dirurik gabe nagoala bai ordea.

ABRAH: Ez estutu! Bear duzun aiña izango duzu. Eseri zaite. *(elkarren aldamenean jarririk)* Ez natzaizu aspaldi bixitatzera joan nere andrearen gaxotasuna dala-ta... eta beste gora bera askorengatik. *(Alde batera ta bestera kezkaz begiratuaz)* Ezin atera naiz etxetik, seme-alabak espa ta susmo txarra ar ez dezaten. Baiñan, aldi au ere igaroko da ta berriro zurea izango nazu. *(Agarengana urbildu ta laztanduaz)*

AGAR: Gizonezkoekin ezin diteke geiegi pio...

ABRAH: Nitaz ere ez?... Aspaldi ezagutzen nauzu bada...

AGAR: Bai, amabi urtetik gora. Ismaeltxok amaika urte ditu eta...

ABRAH: *(Karteratik milla pesetako paperak atera ta Agari eskuratuaz)* Gaur ezin egongo gera luzaroan elkarrekin eta torizu! Nere andre gaxo ta etxekoekin badut aski kezka. Ez da komeni ikus gaitzaten. *(Abraham jekitzen da ta baita Agar ere)*. Goazen or barrura. Ni zuregana ezin joan banaiz, nora ta noiz etorri gaztigatuko dizut. *(Sukalderuntz abiturik)*

AGAR: Eskerrikasko nagusi! Eta gerorako zer?...

ABRAH: Gauzak nola datozen ikusi bear. Sofi zure izebaren bitartez jakingo duzu.

AGAR: Zer nolako itza eman zenidan ez zenduan aaztuko?...

ABRAH: Ez emakume, ez. Gizon-itza da nerea. Gertatzen dala gerta! Orain medikua ta seme-alabak onera etortzekoak dira ta zoaz Sofierengana. Onek daki emengo berri... *(sukalderuntz bultzegiñez)*

AGAR: Eta ez al didazu ezer esaten semearentzat?

ABRAH: Nai duzun guztia, maite! Emaiozu musu nere partez!

(Elkarri musu-emanez sar bitez sukaldeko atetik).

(Bereala etxekoandrearen gelatik Ezekiel eta BEKE etxeko seme alaba datoz, Narziso mediku gaztearekin. Medikuaren bixita ondoren oso goibel agertzen dira naigabea ezagun zaiela. Gelatik atera dirala nabaitzen dualarik Abraham sukaldetik dator, aienganaturik).

NARZI: *(Mediku tankeraz mintzatuz)* Mingarri zait esatea baiñan mediku bezela zuen etxekoandrea gaizki arkitzen dut. Atzo ezkero erorialdia egin du. Orrek esan nai du gaitza aurrera doala; eritasuna gaiña artzen. Biotza aultzen ari zaio ta inyekzioak ez diote ezer egiten. Adiskide zaituztenoi au esan bearra damu dut benetan. *(Elkarri begiraturik guztiok triste-antzan itzik ateratzeke geldi bitez)*.

ABRAH: *(Suspertu naiez)* Leenago ere orrelako erorialdiak izan oi ditu. *(Medikuari)* Ez al dago beste zerbait erremedio ematerik?... Medizinak orrenbeste aurreratu duala-ta.

NARZI: Azkena sortu diran «espezifikoak» emango dizkiogu. Naiz alperrik izan ez da beñere etsi bear. *(Maitxoaren ondoan eseri ta errezeta bat idatziaz)*. Au da emen iñork ezagutzen ez duan sendagaia...

BEKE: Neroni joango naiz botikara billa. Bereala gañera ama sendatzeagatik infartoa edo?...

EZEKIEL: Bitartean «kolapsoren» bat ez bazaio etortzen.

NARZI: Ez dut uste. Luzapena emango diogu naiz gerorako sendabiderik izan ez... Au da nere iritzia. Orain zuek beste medikuren bati dei egin nai badiozute niregatik ez duzute eragozpenik, edozein ekartzen dezutela ere. Espezialistaren bat edo...

ABRAH: Zer derizkiozu Dr. Etxenagusiari otsegitea? Bi medikuen begiek batenak baño geiago ikus dezateke. D. Simonek begi ona du.

NARZI: Dr. Etxenagusia mediku zaarra da, bai naiz ez izan gauza auetan egokiena. Baiñan zuek ikusi. Edozein dala ere gaur ekarri araztea obe. Ni zaspietan emen izango nazute berriro.

ABRAH: Ordurako, bada, D. Simon etorri araziko dugula uste dut. Errian dagoala badakit beintzat.

BEKE: Neronek deia egingo diot Botikara joan da gero.

EZEKIEL: Ez, ez, zu botikak jasotakoan itzul zaitez leenbaitleen etxera. Ni joango naiz Dr. Etxenagusiarengana. Zuk baño errezago arkituko dut. Garai ontan Kasinoan egoten bait da.

NARZI: Mediku zaarrek liburutan baño ajedrezean jokatzen denbora galtzen dute.

ABRAH: Gazte, agian ez da eskolarik txarrena osasunaren aldeko burrukan garbi ikusteko.

NARZI: Nik ez daukat, bada, ortan denbora galtzerik... Beste eri batzuek bixitatzera noa. *(Abiturik)*

EZEKIEL: Elkarrekin joango gera, gizona. Zaude pixka bat.

BEKE: Eta ni ere zuekin joango naiz. Goazen aguro ordea, bestela emen mediku arteko eztabaidetan gaixoa gaizkituko zaigu. Beldur naiz. *(ateratzeko gertutzen ari dala)* Ez al da gaiñera, obe izango baita ezpada apaizari deitzea?

NARZI: *(Axolakabe)* Apaizak animarentzat ez ezik gorputzarentzat ere zenbait mediku ta botikak baño petrekillo obeak dira. Sineskerian dago guztia. Fedean...

BEKE: Gure amak on badizu-bada eta Farmaziatik Elizara joango naiz Don Isai erretore jaunaren

billa. *(Anai-arreba ta Medikua bata bestearen ondotik abiturik)*

ABRAH: Bakarrik utzi bear al nazute?

BEKE: Nik laister egingo dut itzulia. Bitartean or duzu Sofi, Amatxoren gelara joan dedilla. Bereala naiz emen botika berriekin...

NARZI: Ar arazi zaizkiotzu bi pildora ur pizka batekin. Gero gu etortzean zer ondorengo egin dioten ikus dezagun.

BEKE: Bai, ez dezagun denborarik gal. Goazen *(bijoaz irurok)* Aita! Sofik kasu egin dezaiola *(bijoaz)*

ABRAH: Bai Beke, ama gaixoa zainduko dugu. Zoazte.

(Unetxo batean Abraham bakarrik geldi-tzen da. Emaztea oean gaixorik dagon gelako atera urbildurik kezkati begira-tzen dio).

* * *

(D. Abraham gaixoaren gelara begira dagon bitartean, sukalde atetik Sofie mirabe zaarra ager bedi. Poliki nagusiari galdegiten diolarik).

SOFIE: «Nobedade» txarren bat al dugu nagusi?...

ABRAH: *(Buru itzuliaz)* Aspaldi dira «nobedade» txarrak gure etxean Sofi.

SOFIE: «Señora» poliki ote zegoan iruditu zait, bada, esne-basoa eramana diodanean. Aurpegi ona arkitu diot... paketsua.

ABRAH: Gutxi iraun dio itxurak. Mediku gazteak dionez beera aldera omen dijoa ta erremedio berria eman bear zaiola agindu du...

SOFIE: D. Narziso ori oso mutil polita da baiñan ez mediku ta ez gizon bezela ez zait batere gogoko. Ni ez naiz iñor agintzeko, alare, nere esku balego D. Simon mediku zaarrari otsegingo nioke.

ABRAH: Orixe erabaki dugu, zaude lasai. Seme-alabak leenago gazteari deitu zioten, obe bearrez. Medizina berrian geiago dakiala-ta.

SOFIE: Eta nun du D. Simonen begia... eta pultsua artzea?... Ez da guztia liburutan ikasten. Ikusiak ikusi... pratikak balio du.

ABRAH: Ez dakit. Dana dala, bat izan, bestea izan, neronek ere atzotik onuntz daraman erorialdi gaitzari antzeman diot. Kontuz begira zazu

begira atetik. *(Sofie ta biok gelako urbilduaz pizka batean gaixoaren oeruntz begira jarriaz)*.

SOFIE: *(Berriz erdialdera etorriaz)* Lo zorroan dagoala dirudi... Etxekoandre koitadoa... Ez gera ezer!

ABRAH: Inyekzio ziztadaz josi dute ta nai ta nai ez lo artu bear. Il ala bizi. D. Simon etorri dedinean zer esaten duan ikusiko dugu. Apaiza ta Elizako-en premi geiagoan arkituko duala uste dut, orrengatik «Beke» farmaziara ezik D. Isai erre-tore jaunaren billa joana da. *(Sofie ta Abrahm zutik antzeztokiaren erdian itzik gabe gelditzen dira unetxo batez samindurik)*

SOFIE: *(Erdi negarrez eta zingurinka)* Lo zorroan dago-ala ez ote dan sendatuko beldur ematen dit. Jesu! zer gerta bear du emen. *(Berriz gelara urbilduaz)* Arnasa artzen du.

ABRAH: Itxoin zagun. Entzun Sofi! Bakarrik gauden ezkero jarri zaite or. Bai eseri!

SOFIE: Ez, nagusi ondo nago zutik... batetik bestera joateko...

ABRAH: Ni eseri egingo naiz bada, nekaturik nago-ta *(Eseri ta bekokiko izerdia txukatuaz)* Sofi! *(Itz totel)* Zuk... nik Agar-ekin izandako artu-eman

guztien berri ondotxo dakizu noski... Eta... zera... dana jakin izan duala uste al duzu?...

SOFIE: Dana... dan-dana ez dut esaten... baiñan geien-geiena bai beintzat...

ABRAH: Eta Agar-engandik seme bat izan nuala ere bai? Sasikoa alegia?...

SOFIE: «Sasikoa»? ez! oe garbian jaio zan, nik ala uste ta mutil ederra gañera...

ABRAH: Bai Sofi, bai. Zuk eta nik dakigu, baiñan etxe-koandreak...

SOFIE: Egia esan bear badizut, nik bayetz uste, naiz lotsaz edo isilik egon arren.

ABRAH: Eta etxeko... beste seme-alabak zer diote? Ba al dakite?

SOFIE: Jakin?... Auek guztia dakite, baiñan ez dute ezer jakin nai. Begiak itxitzen dituzte ta kito! Agar? ere ikusi dute onuzkero bai...

ABRAH: Esan diot bada, ez dedilla emen etxean ager-tu etxekoandrea onela gaixo dagon bitartean...

SOFIE: Eta gero?...

ABRAH: Gero... gero...

SOFIE: Bai! gero... gerokoak?

ABRAH: Oraingoak ikusiaz pentsatuko dugu.

SOFIE: *(Kementsu)* Ez aaztu, Agari itza eman zeniola alargun gelditutakoan arekin ezkonduko ziñala.

ABRAH: Itza eman... itza... bai ez dut ukatuko. Baiñan itza noiz eta nola bete zaillagoa da. Ez da orain-txe orain erabakitzeko arazoa. Ezkontzea beste-rik ez balitz. Or daude, ordea etxeko seme-alaba, batetik... Bestetik...

SOFIE: Ismaeltxo, bai, ondo mutil jator eta bizkorra dator...

ABRAH: Etxekoak senide berri, ugatz-anaia nola artu-ko duten ez jakin ordea...

SOFIE: Guztiok dira aita baten senide eta Jainkoaren seme gañera...

ABRAH: Etxekoandrearenak, il zorian dagon emaztea-renak leenengo biak... Agar-ena bestea.

SOFIE: Neskamearena... bai. Aberatsok nekez artzen dezute senide berririk. Baserri ta pobre-familie-tan, berriz, guraso ez-ezagunen aurrak ere erre-zago artzen dituzte. Zure «Agar» alaxe jasota-koa izan zan gure etxean. Ez bazenekien ere!... *(Gaixoaren gelaruntz joan ta begiratuz)* Arnatsa artzen du baiñan ez da esnatu.

ABRAH: Gauden isilik. *(jeikiaz)* Norbait dator eta gero jarraituko dugu. *(elkarrizketa etenaz ateruntz*

bijoa ta une berean kaletik «Beke» sar bedi eskuan paketetxo bat daramakiala) Aguro egin duzu itzulia, Beke...

BEKE: Amatxok nola jarraitzen du. *(Gelaren ateraño joan eta begiratuaz)*

ABRAH: Berdintsu. Lo dago, ez du arnas larririk. Zuk egin al dituzu egitekoak?

BEKE: Bai Aita! Farmazian bereala gertu dizkidate errezetak. D. Isai erretorea eleiz atarian arkitu dut; beraz ez dut denborarik galdu. Beriala etorriko dala esan dit. Beraz laister dugu emen.

SOFIE: Kandelak eta zapiak ipiñi bearko ditugu...

BEKE: Ez, Sofi!, ez da oraindik garaia. Bixitara bakarrik etorriko bait da lenengo. Gero berak esango digu noiz etorriko dan Sakaramendu santuak ematera. Bitartean ur irakiña gertu zazu inyekzio orratza garbitzeko. Guata geiago ere bearko da. Eta... piz... ontzia.

SOFIE: Bai «señorita» oraintxe noa guztiaren billa. Eta, ez al diot ekarriko beste esne-baso bat?... Aulduko bait da bestela.

BEKE: Ez emakume, ez. Zuk esnetan itoko zenduke. Ez du ezer artu nai. Tantaka-tantaka indartu ta

suspertzen dute. Ez da gosez ilko. Noan zertan dagon ikustera... *(Gelaren barrura bijoa)*

SOFIE: Eta ni sukaldera. Zuk agindutakoa egingo dut. Bat ez da iñor!

(Bijoa).

ABRAH: Guztion artean zerbait onik aterako aal dugu. Eskerrak onelako alaba eta onelako mirabe leialak etxean ditudala. Eria nola zaintzen duten ikustekoa da, alperrik baldin bada ere...

(Mai-atzean dagon besaulkian eserita bertan dauzkan paperak miatzen asiko da bere buruaz gogoeta egiñik).

...Nere andreak merezi du bai bere osasunez ardura ditezela.

Nik berriz zer!?... Joku txarra nerea!... Iltzen bazait... Zaartu aurretik eriotza badatorkio... ni nazu errudun!...

(Kezka latza darabil barruan kanpora agertzen zaiona. Zimiko, keñu tartean

uste gabe itz bakar batzuek aotik atera-tzen zaizkio... Agar! Ismael! Beke! Eze-kiel!... Mai gaiñera burua makurtzen uzten du ta erdi ametsetan geldituaz. Une ontanxe kaleko atetik Ezekiel sar-tzen dalarik).

EZEKIEL: *(Aitari begiratuaz)* Lo?... Norbaitekin izketan ari zala esango nuan... *(otsegiñez)* Aita!

ABRAH: *(Bat batean susperturik)* Zu al ziñan, seme?

EZEKIEL: Bai jauna. Ni naiz. Nor zan emen? itz otsa entzun dut.

ABRAH: Ez iñor ez! Nere buruarekin izketan ari nin-tzan. Bakarrik utzi naute-ta... ezin egon nunbait isilik.

EZEKIEL: «Beke» ez aal da oraindik itzuli?

ABRAH: Bai, etortzea egin du ta amaren gelan duzu. Botikatik ekarri dituan erremedio berriak ema-teko asmotan. Gauzak leenbaitleen egitea obe dala-ta mediku gazteak dionez...

EZEKIEL: Ni berriz, D. Simon zaarraren billa joan natzaizu. Zaspietako emen izango dala agindu dit. Mediku faltaz ez dedilla beintzat gure ama

il. Egin ditzatela alegiñak bizia luzatzeko, bederen.

ABRAH: Era batera edo bestera orretara bearturik daude, naiz elkarren leian...

EZEKIEL: Leia ortan gaixoari ez ote dioten alperrik sufri araziko pentsatzen dut. Ez aal da okerrago?

ABRAH: Biziak noiz arte iraun dezaken ez bait da neurtu erreza, Jainkoak nai dezan arte, noski. Eriotzaren mixterioa, ordea gañean dugu beti.

EZEKIEL: Aita! Gaur oso «metafisiko» arkitzen zaitut, orain arte korputzari makurtuagoa bizi izan zera espirituari baño... Lurreko gauzetara lotua...

ABRAH: Onela gerta oi da une larrietan, seme, arrokeriak utzirik goruntz begiratzen baldin badugu.

(Aita-semearen arteko isilunea Sofie sar bedi bandeja batean ur-ontzi, katillu ta beste zenbait puska daramazkiela).

SOFIE: *(Ezequiel ikusirik)* Zu ere etorri zera?... Etxekoak onela maiz biltzen asten diranean, jai ez baldin bada... uhmm! malo!...

EZEKIEL: Zuri puskak eramaten laguntzea etorri naiz ezer puska ez dezazun.

(Bandejatik zerbait artu ta Sofie ta biok gaixoaren gelara sar bitez).

ABRAH: *(Berriz bakarrik geldi dalarik batetik bestera dabil):* ... Ez naiz ezer egiteko gauza. Iñori laguntzeko din. Nere egin bearra nun dagon ez bait dakit. Emen ala oe buruan. Zer egin bear dut ordea? Nola mintza? Nola jardun! Geldi ta isilik egotea ez al da olakotan obe?... *(Isilunea dabillela)*... Sartzen banaiz ezagutuko al nau? Egin diozkadan txarkerien barkapena eskatuko diot. Zer eskeñi nezaioke damutasunez beste?... Jainkoari otoitza.

(Barne-otoitz isillean ari dala Don Isai erretore jauna kaleko atetik oartzeke sartzen da).

D. ISAI: Jainkoa dizula arratsalde on nagusi!

ABRAH: Baita zuri ere erretore jauna. Ez dut nabaitu etxera sartua ziñanik. Ain nago naigabetua.

D. ISAI: Ez da gutxiagorako zure alabak esan didanez. Medikuek gauza gaizki ikusten dutenean apaizek izaten dugu txanda...

ABRAH: Bai, atzo ezkero asko jetxi da. Erdi lo zorroan dago baiña okerrago doala igartzen zaio. Ez du ezer artu nai.

D. ISAI: Oraindik susperraldia izan dezake sueroak ematen dizkiotela. Ni ikusteak ez dut uzte kalterik egingo dionik.

ABRAH: Berak eskatu du etorri zaitezala. Zai egongo zaizu. Or da «Beke»... bakarka itzegin nai badizu aterako da...

D. ISAI: Konfesatu berria da zure emaztea, joan dan igandean, azkeneko Jauna ekarri nionean. Beti izan da andre on eta kristau zintzoa. Oso larri ikusi arte ez dizkiot elizaren azken olio ta beinkapenak emango. Ez badizkit eskatzen beinik bein.

ABRAH: Zurekin pozikago itzegingo du bai, medikuekin baño. Gogo onez artuko zaitu. Zoaz, zoaz, bidea badakizu.

D. ISAI: Noan barrura ea nere bixitaz anima ezik korputzari osasuna ematen lagundu nezaioken.

Jainkoaren borondatea besterik baldin bada. Eriotz on baterako gertu dago. *(abiturik)*

ABRAH: Ni testigu txarra nazu ta emen gelditzen naiz...

(D. Isai sartu ala Sofie irtetzen da).

ABRAH: *(Sofieri)* Ta... nola utzi duzu etxekoandrea?...

SOFIE: *(Buruarekin ezezkoa egiñik)* Gaizki! Dantza txarra asi dugu etxe ontan. Ez diot iñondik atarramentu onik ematen. Mediku gaztearekin beintzat. Bear bada apaiz jaunaren bixitarekin eta gero D. Simon mediku zaarra datorrelarik zerbait aurreratzea baditeke. Baiñan naiko lan. «Beke»ri ere ozta-ozta itz bat edo beste esaten dio.

ABRAH: Nere izenik ez aal du aitatzen?

SOFIE: Nik ez diot ezer entzun. Begira jarri zait baiñan isilik... Ezaguera badu bai... bear bada, orregatik ez du zure izenik aitatzen.

ABRAH: Zer derizkiozu, joango al natzaio oe ondora barkamena eskatu ta pakea egitera?

SOFIE: Zer esango dizut bada... Señorita «Beke»ri galdegin zaiozu. Nik uste oraingoz onena pakean

uztea duzula. Sendatu dedinean zer gertako dan batek ba al daki? Sukaldean badut aski lan arropa garbitzen. *(sukalderuntz abiturik)* Semealabak or dituzu ta iruron artean antolatuko zerate. *(bijoa)*

ABRAH: *(kezkati)* Bai, arropa zikiña etxekoekin garbitu ta zuritu bear da. *(Batetik bestera ibilki)*

* * *

(Amaren gelatik Beke ta Ezekiel irten bitez).

BEKE: *(goibel)* Aita! Amak ez duala luzaroan iraungo irentsia daukat...

EZEKIEL: Goizetik onuntz izugarri beeraldia eman du. Ezaguera ta itza gutxitu zaizkio.

ABRAH: Ni gelara joatea alperrik izango da orduan?...

BEKE: Itxoin zazu. Okerrena da suero ta inyekzioak ez diotela ezer egiten. Aultzen ari dala. Alare Erretore jaunari ongi etorria egin dio irripar gozoaz agurturik.

EZEKIEL: Orrek esan nai du ez dagaola ain gaizki.

ABRAH: Ala izan dedilla. Orain apaiza or dagon bitartean itzegin nai nizuteke...

BEKE: Ni eseritzera noa neka-neka egiñik nago-ta.

ABRAH: Ni ere bai akitua, ez dakit nekez ala kezkaz.

EZEKIEL: Olakoetan zutik nago ondoenik. Belarriak erneago bait daude.

BEKE: Ez daukat ezer entzuteko gogorik baiñan...

ABRAH: Bai eta orain da garaia ama galtzeko zorian zaudetenez, aita pekatari onek bere utsegiteak aitortu bear dizkitzute.

BEKE: Aita! Beste egun baterako utzi zazu. Guztiok ditugu gure utsegiteak... Gaztearoko pekatuak.

EZEKIEL: Damutzeko denbora izan duzu.

ABRAH: Bai baiñan denbora galtzen utzi danean eta oker asko sortu ezin niteke isildu. Zuen amaren eritasuna ta biotz miñan nere urte askotako makurkeriak egin dizkio. Zaartu gabe iltzen baldin bada ni nazute errudun.

EZEKIEL: Makurkeria ta guzti «birus» txar batek ez balu gure ama mendaratu Iuzaroan bizi zitekean oraindik.

BEKE: Ama gaixoa! Bizi-poza galtzen danean gaitz guztiei atea irikitzen zaiela egia da. Ori gerta zaio. *(Oñazez)* Aita! okerrak zuzentzeko beran-

duegi duzu. Gizonezkoek biotz gogorragoa duzute ta mauka zabala pekatu guztientzat. Emakumezkoek berriz...

EZEKIEL: Zeñekin ezkontzera zoazten ondo begira bear aldez aurretik.

BEKE: Aukera egitea ez balitz ain gauza zailla...

ABRAH: Anai-arrebak egizute nai aña errita ta zaputza baiñan itzegiten asi naizen ezkero guztia esan bear dizuet... *(lotsaz)* Zuen amaren seme ez dan beste anai bat badezutela *(txintik atera gabe entzun bezaiote)*. Entzuten? Entzun ondo, bai. Nere ta etxean izan genduen Agar neskamearen semea...

BEKE: *(Alkitik altxa ta urduri)* Aita! Ez da auxe zure pekatuak gogoratzeko unerik egokiena. Leendanik ere zure isil kontu on bagenekigun, naiz ez aitatu arren.

EZEKIEL: *(garratz)* Zuretzat gorde zazu bada «sasikumea»... Semea baldin baduzu ere, guk ez dugu aitortzen anaitzat.

ABRAH: Nere semea dut bai eta ez dut beñere ukatuko. *(Ozen)* Ismael du izena.

BEKE: Ez oiurik atera gure amak entzun ez dezan. Ismael ori, anai dugu bai Jainkoaren aurrean.

EZEKIEL: *(Zakar)* Ez neretzat; ez legez!

BEKE: Ezekiel! itzegizu isillago. Amak oetik entzungo balu...?

ABRAH: Entzun? Entzuten ez badu ere nere jokua ondo aditurik daukala esango nuke. Barkapena eska bearko nioke ain berandu ez baledi...

(Une ontan D. Isai gaixoaren gelatik aztoraturik irten bedi).

* * *

D. ISAI: Sar zaitezte, sar gaxoarengana. Ondo ezak eman dio. Miokardiotik izan bear du. Nik bada ezpada azken absoluzio ta beinkapena eman dizkiot. Ezaguera badu oraindik eta begiak zabalik deitzen zaituztela dirudi... Jesus esanez...!

BEKE: Amatxo gaixoa! *(gelara joanez)* Medikuek laister etortzekoak dira ta *(Ezekieli)* zoaz billa.

EZEKIEL: Banoa, bidean izan bear dute onuzkero *(bijoa kaleko atetik)*

* * *

ABRAH: Azkenetan dagoala al derizkiotzu? Ain larri?

D. ISAI: Beste kolapso bat egiten bazaio bai. Lasa ta trankil dago Jainkoaren borondatea egin dedin.

ABRAH: Nik ez daukat orduan zer egiñik. Ni agertzea barkamen eske kaltegarri izango zaio. Ez duzu ala uste?

D. ISAI: Ala da D. Abrahm. Geiegi daki guztia ta barkatzen dizute etxeko danei, bera ildakoan elkar maitatuz kristau-pakean bizi zaiteztela eskea egin dit.

ABRAH: Aren aurrean agertzeko din ez naizen ezkero zuri eskatzen dizut barkapena. D. Isai. *(belaunikaturik)* Jainkoak barka nazala zure bitartez eta aurrerantzean Bere borondatea bete dezadala. *(Ontan Sofia sar bedi estu ta larri)*

SOFIE: *(malkoa dariola)* Ai ene! Gureak egin du. Gure Señora koitadoa! Mediku gazte orren erremediokin ez genduela atarramentu onik aterako esaten nuen nik... D. Simon etorri izan balitz besterik izango zan. *(Negarrez malkoak txukatuz zingurinka)*

D. ISAI: Zaude isilik Sofi. Ez da medikuen gora-bera. Bat izan bestea izan gaixoaren bizia Jainkoaren eskutan dago.

(Sofie gelaren ateruntz dijoa an gelditu-rik.
Kaleko atetik norbaitzuek datozela an dijoa).

ABRAH: Bai Ezekiel eta Narziso badatoz. Oraindik medikuak zerbait egin dezakeala uste dut.

D. ISAI: *(Sartzen ikusiaz)* Aguro mediku jauna ea beste inyekzio bat ematen diozun, pultsua oso aula dauka.

NARZISO: Nik utzi dudanean ainbestean zegon. Biotza oso nekaturik dauka, miokardioa ez da txantxe-takoa. Ea sendotzen diogun.

EZEKIEL: Goazen bada. Eskerrak bertan ziñala... *(sar bitez biek)*

* * *

SOFIE: *(Bere kaxa)* Orrenbeste orratz ziztada emanik ez badute lertzen berriz ere biotzak egingo dio min. Miokardio alena! ez bestena.

ABRAH: Bizitzaz dago nekaturik, bizitzaz Sofi.

D. ISAI: Egin zagun otoitz komeni bazaio Jainkoak osasuna eman dezaion-eta bestela eriotz on bat. *(Gurutzearen siñalea egiñez otoiz isilean ari da eta irurok belaunikatuaz gaixoaren gelaruntz begiraturik otoitz egiten dute)*

ABRAH: Orduan nere izenik ez dizu aitatu.

SOFIE: Nerea ere ez noski.

ABRAH: Zer izen esan dizkitzu azkenik...

SOFIE: Jesus esan bear dala erakutsi ziguten...

D. ISAI: Ala izan da baiñan aurretik onoko auek: Agar eta Ismael.

(Sofie negarrez ari dala)

OIALA ERORI BEDI GELDIRO

* * *

Antzeztoki inguruan KORU-SAILLAK kanta beza Isairen 12-I-6 Salmua:

ARA JAINKOA DA NERE OSASUNA
LASAI NAGO BADOA NERE BELDURRA
JAUNA BAITA NERE INDAR ETA KEMENA
BERA GERTATU DA IAREGIN NAUENA.

LEENENGO EKITALDIAREN BUKAERA

II. EKITALDIA

(Oiala altxa aurretik lenengo ekitaldearen joku ta ikusbegi bera kantuz eta dantzaz Koruak parte artzen dualarik. Joanes Bataiatzaillea albotik eldu dala antzin solasa esango du).

JOANES: *(Ozen)* EGIN PENITENTZI!
ALDA ZUEN BIZITZAK!...
EGIN ONDO...!
ORAINDAÑO GAIZKI EGIN DUZUTENA!
(Mintzatuz) Basamortutik nator. Zer gerta da bitartean emen?

(Ezkutatzen da ta bitartean Agar eta Ismael antzeztokiaren aurre aldetik, mutur batetik bestera igarotzen dira israeldarren jantziaz. Leengo ekitaldian eskuitik ezkerrera ibillaldia egin baldin bazuten orain alderantzian).

JOANES: *(Berriz agertuaz)* Jainkoak bere itun Berria emango dion gizaldikoa izatea gauza aundia da. Onek leialtasuna eskatzen du Yaverentzaz gorde bear bait ditugu gure biotz eta izate guztia. Isai profetak zion: «Gure pekatuengatik Mesias zauritu ta txautua izango zala. Baiñan aren zauriak sendatuko gaitu ta gizataldea salbatuko da. *(Joanes aienatzen dala Oiala jaso bezate)*

* * *

(Leengo ekitaldiaren etxe-barne bera. Abrahm aberatsaren sala apaiña, mai arats ta eserlekuz ornitua. Abrahm eta D. Isai eserita daude elkarri buruz-buru mintzatuz).

ABRAH: Luzeiritzirik nengon. Alargundu ezkero au baita egiten didazun lenbiziko bixita.

D. ISAI: Egunak pasatzen utzi ditut. Olakoetan arrotzak gañezka gaude... Ez da bakardadea bezelakorik norberak bere gogoetak egin ditzan... Gerora erabakiak artzeko.

ABRAH: Erabakirik ez dakit baiña nere andrea zanaren eriotzak utsune aundia utzi didala bai. Utsune aundia ta ez kezka txikiagoa, familiaren barruan... Emendik aurrera nere seme-alabarekin bizimodua nola antolatuko dudan ez jakin...

D. ISAI: Bide zuzenetik joanda noski. Emazte ona izan zenduanak zer nolako itzak esan zituan badakizu. Agindua bezela esanak eta zure kontzientziaren abotsa erabat: eta denbora gutxi barru Agarekin ezkontzea nai ta naiezko zaizu.

ABRAH: Nere aldetik ez dago eragozpenik. Seme-alabari aitatu diet ta aurpegi txarra jarri didate... Berak beste etxe batera bizitzera joango dirala. Ez dirala emen geldituko.

D. ISAI: Semea ezkontzekotan dabilkizu aspaldi ta bere etxea izatea bidezko da. Alabak ez dakit zer egin naiko duan...

ABRAH: Bekek etxetik alde egiteak min aundiagoa emango lidake. Narzi mediku gazte ori atzetik dabilkiola erri guztian zabaldurik dago.

D. ISAI: Olako susmurrak beti izaten dute beren egia.

ABRAH: Ez dut uste nik mutil ori oso gogoko duanik. Eta konpiantzan esanda, D. Isai, neri ere ez zait batere sartzen. Ez mediku ta ez gizon bezela.

Gaiñera, gure «Beke» monjagaitzat neukan orain gutxi arte.

D. ISAI: Ez da errez jakitea zer dagon neskatx baten biotzaren erdian... Zure eginbearra aren borondatea errespetatzea da. Ortan gazteok arrazoi dute gurasoen aurrean. Ezin jarriko duzu zere burua... eredutzat. Ez da ala?... Beraz, zure alabak, berak erabaki dezala aski zentzu ta ezaguera baditu eta...

ABRAH: Ez dut ezetzik esaten baiñan beldur naiz Medikutxo ori «Beke»taz maitemindurik baiño, nere diruaz zaleturik ez ote dabillen.

D. ISAI: Ez zazula zure dirua geitxo gorde nai. Utzi ori alde batera! Elkarri egiazko maitasunik baldin badiote, argitasuna etorriko da... Itxoin!

ABRAH: Bearko! Seme-alabaren arazoa baño leenago nerea garbitu bearra daukatela badakit. Alegia, nere bigarren ezkontza legez elizaz antolatu.

D. ISAI: Ez duzu gauza zailla. Gizonezkoek, naiz alargun izan ez zaudete itxoitera bearturik. Paperak presta ta kito! Juezarena egindakoan, berriz, zalapartarik gabe, goizean goiz, elizan beinkapena neronek emango dizuet.

ABRAH: Orrek ez dit kezkarik ematen... ezta... etxeko seme-alabari aurretik gaztigatu bearrak ere. Ezkonduta, Agar etxera ekarritakoan Ismaelekin zer egin bear dugun... ortan dago kezka ta... koska. Sasiko semearekin zer egin...

D. ISAI: Ez da sasikumerik! Ez aitatu itz zatar ori. Guztiok gaituzu Jainkoaren seme. Eta Ismael etxean semetzat artzea da kristau bezela egin bear duzun lendabiziko lana.

ABRAH: Ori da, bada... «koska». Kristau-agindua bat izaki ta gizonen legea bestea... Etxeko seme-alabak konformatuko dira ni berriz ezkon nadin. Bainan ez dute onartuko Agar-en semea anaitzat ezagutzen. Oni seme eskubide guztiak aitortu ezkero aien kaltean bait dijoa. Legea aien alde daukate.

D. ISAI: Leenago ere esan dizut Abram jauna, gizonen legeen aurretik Jainkoaren agindua dagola... naiz kaltean izan. Eta gaur erri aurreratuetan legeak berak, senide guztiak, ezkontza barruko ta kanpokoak bat egiten dituala. Orobat! Danok anai-arreba!...

ABRAH: Neri ajola gutxi D. Isai, guztiok seme dituteta... Zuk ikusi Ezekiel eta «Beke» zure apaiz iri-

tzira nola makurtzen dituzun. Aiekin itzbidean jarri zaite, etxean dituzu, nunbait. Dei egingo diet. Ez da izango laguntza makala neretzat...

D. ISAI: Zure esanera naukazu. Pozik agurtuko ditut emen nagon ezkero. Datozela bai! Gerorako uzteak ez ditu gauzak errezten.

ABRAH: *(Jeki ta alboko gelaren atera joanik oiu egiñez)* Ezekiel! Beke! ...Atozte! ...D. Isaik agurtu nai zaituzte...

D. ISAI: *(Au ere zutik jarririk)* Ez dakit gazteai itzegiten asmatuko ote dudan. Isiltzea ez legoke ondo. Obe omen da zakur zaunkalaria mutua baño. Jainkoak esanda; ta Berak lagun nazala.

(Ezekiel eta Beke sar bitez).

BEKE: Ongi etorri D. Isai. Ez genekigun etxean ziñanik *(eskuan mun emanik)*.

EZEKIEL: Ainbeste jende dator etxe ontara... *(eskua emanez agurtuaz)*.

D. ISAI: Ni falta nintzan, nunbait. Burrundara baretu arte pakean utzi zaituztet.

ABRAH: Entzun ditugun gezurrezko atsekabe-itz eta malkoen artean D. Isaik zenbait egi jakingarri

esan nai dizkitzutela dirudi ta patxaran entzun zaiozute. Eseri zaite, eseri D. Isai.

BEKE: Gu ere bai, orduan... *(D. Isai ta Abrah erdian eta anai-arreba ertzean jarri bitez)*.

D. ISAI: Sermoia entzuteko gertu jarri zeratela esango nuke... baiñan ez da olakorik.

BEKE: Egoki askoak, botatzen ditu pulpitutik.

D. ISAI: Elizan Espiritu Santuak lagunduta esatea gauza bat da ta emen zuen erdian sarturik nagola bestea. Ez da berdin... Kontrako erantzuna jaso bait diteke. Masaillekoren bat ere bai toki batzuetan...

EZEKIEL: Ezin esan guztiari «amen» apaizak oi duzuten antzera...

ABRAH: *(Urduri)* Tira! tira! Itzaurre ta kako-makotan denbora galtzen ari gera. Gezurrezko malkoak isurtzea txarra bada au ez da obea.

D. ISAI: Nere itz motelak ez zaituzte asko poztuko. Emazte ta ama on zenutena il ezkero etxean utsune aundia gelditu zaizutela zeok antzemango zenioten. Ua Jainkoaren besotan dago, munduan gelditu geranok ez gaude ain seguru. Zuek, batik bat, familiaren etorkizunari begira bearra daukazute. *(Gazteai begira)* Zuen aitak,

orain urte batzu etxean neskame zegon Agarekin... *(Zalantzan Abrami begira)*.

ABRAH: Esan, bai. Itzegizu argi ta garbi. Ez da isilmisilka gordetzeko kontua. Aspaldiko kondaira...

D. ISAI: Agar neskamearekin seme bat izan zuala.

EZEKIEL: Kontu zaarra! jakiñaren jakiñez aazturik daukaguna.

BEKE: Obena aitortzen duan pekatariari barka bear zaio. Ez al da ala D. Isai.

D. ISAI: Bai «Beke», baiñan egin dan kaltea ordaindu ta gero. Goazen aurrera! Zuen aitak Agari itzeman omen zion alargundu ezkero berarekin ezkonduko zala. *(Abrami)* Ez al da ala nagusi?

ABRAH: Egia da ta ez dut ukatzen, itza itza da...

EZEKIEL: *(Albora asarrekoi)* Eta pitza... pitza!

D. ISAI: Itz ori betetzeko garaia eldu zaizu ta berri ori leenengo jakin bear dutenak zure seme-alaba dira... *(Isilume larria)*.

EZEKIEL: *(Zutitu ta ibiltzen asiaz)* Gure aitak itzeman bazion eta bere ortan baldin badago... Ezkon dedilla! Guk ez daukagu ezer esaterik. Bere buruaren jabe da.

BEKE: *(Anaiari)* Zaude lasai Ezekiel! Elizak baimentzen duan ezkontza berria, semeok ezin galeraziko dugu. Eseri zaite!

D. ISAI: Gai ortan iritzi zuzena duzutela pozik ikusten dut. *(D. Abrahmi)* Ez dugu esango, nagusi, zure seme-alabak ama galdu ondoren eta naigabe erdian zentzu ta ezaguera ez dutenik.

ABRAH: Alaxen da eta eskerrak eman bear dizkiet. *(Seme alabari begira)* Eta... barkapena. eskatu ere bai zuei ta zuen ama zanari, egindako makurrarengatik...

D. ISAI: Aski da, aski... Apal eskatzen duanari ezin eman zaio ezezkorik... Jarrai dezagun. Agarrengandik izan zuan semea bizi dala ederki dakizute, naski. Ismael du izena... ta koskorturik dago ain zuzen ere. Eta orain dator gogorrena: zuen aitak mutil errukabe orri semetzat aitortu ta izena eman bear diola. Eta zuek *(anaiarrebari)* anaitzat artu bear duzutena.

EZEKIEL: *(Asarre)* Sasikoa da-ta legez ez da gure anai... Ez ditzake gure eskubide ta ondasunak izan...

BEKE: Gure anai-erdi bai Ezekiel...

ABRAH: Ori legeak agintzen duan eran antolatuko dugu bein nere bigarren ezkontza bururatu ta gero.

D. ISAI: Jakiña! Gizarajoak ez du errurik ezkontzatik kanpora jaio izan bazan. Gaizki esanda sasian... Etxera ekarritakoan, ziur nago, «Beke» maitasuna artuko diozuna. Jainkoaren legeak ez ditu anaiak bereizten. Are gutxiago aita baten seme diranak...

EZEKIEL: Gure aitak andre berria ar nai badu ar dezala; eta ekar dezala onera bizitzera «sasikume» ta guzti. Baiñan *(altxarik)* jakin zazute ni, etxe ontatik kanpora bizi izatera joango naizela... Banoa emendik! *(Abitzen asten da pipertua)*.

BEKE: Ez joan Ezekiel! Nik zurekin bizi bear dut; zu zera nere egitazko anai-eta... Bestea ez dut arbuiatzen baiñan ugaz-ama ta guztiok emen elkarrekin bizitzea familiarentzat lotsagarri litzake. Jendeak zer esango dute? Ezekiel! Ni zurekin joango naiz. *(Zutitzen da)*.

D. ISAI: *(Larderiaz)* Ez dezazuteke ori egin. Geldi zaitezte biok! Eta geiago zu «Beke» zeran kristau zintzoa izanda. *(Ateruntz bijoa anai-arreba irten ez ditezen)*. Pentsa zazute! begira zuen barrura,

biotz samintasunik gabe, begiko lausuak kendurik!...

ABRAH: Utzi zaiezu, utz! bijoazela nai baldin batute. Libre ta aske dira. Ni ez naiz mutil koskor bat eta zer egin jakingo dut...

D. ISAI: Buru-berotasun eta kaiskallukerian ez dira gauzak zuzen egiten. Berekoi ez danak otzean iritziaz aldatzen da. Gaurkoz aski izango dugu ta ni nere sakristira noa. Goazen kalera aize preskoa artzera.

BEKE: Nik lagunduko dizut. Elkarrekin joango gera. Goazen Ezekiel.

EZEKIEL: Ez, ni etxean geldituko natzaizute, lanak bukatzen.

D. ISAI: *(Abiturik)* Ederki! baiñan ez zazula erabaki gogorrik artu. Goiztxo da oraindik...

(D. Isai ta «Beke» kalera dijoaz eta Ezekiel gelaruntz).

* * *

ABRAH: Zoazte bai. Urrengo batean jarraituko dugu. Eskerrik asko bixitarengatik. Ni etxean geldi-

tzen naiz paper zaarrak miatzen; baiñan bide-erdira estankoaraño lagunko zaituztet. *(Bijoaz Guziok)*.

* * *

(Abrahm itzuli bitartean sukaldeko atean zeletan zegon Sofie agertzen da. Sukalde barruan dagon Agarri otsegiñez).

SOFIE: Sar adi! Guztiok aldegin diñate. Nagusia ere D. Isairi laguntzera joana den baiñan laister izango diñagu emen, etxeko arropakin zegonan... Ator Agar.

AGAR: *(Sarturik)* Naiago dut joanak dirala. Orrenbeste jendeen aurrean agertzeak lotsatzen bait nau. Nagusiarekin bakarrik gaudela besterik da. Zer asmotan dan galdegin nezaioke. Eta Ismaeltxo-rekin zer egin bear dugun ere bai. Ez daki asko nerekin etorria dala ta etxean daukagula zai...

SOFIE: Urte askotxo daramazkin onela ta orain den estu artzeko okasioa. Pauso bat aurrera eman eta emengo etxekoandre aiz... Itza... itz!

AGAR: Ala da, baiñan poliki zamar joatea obe. Alargundu berria bait da.

SOFIE: Neska! aspaldi unan bizi-alargun. Ai! ai ai! au mundue! Gizon eta emakume! Kuxidade ederra kristauentzat. Eskerrak ni, neu gizonezkoek ikutugabekoa naizena. Lasa bizi naun...

AGAR: Zer nai duzu! Gauzak uste gabe gertatzen dira. Pekatari bait gaituzu.

SOFIE: Ai zuek zuek! *(Abrahm datorrela oartuz)* Nagusia emen den! Bakarrik utziko zaituztet. Ez duzute nere bearrik. Elkar ondotxo ezagutzen duzute bai...

AGAR: Ez badakizu ere, beñere baño beldurtiago nago. Barruan alako estuasun bat. Etzenduke sinetsiko. Aspaldi elkarrekin egon gabeak gerata.

SOFIE: Tira! tira! Ez dion ire ama zanari otsegingo. Ezta onoko izeba oni ere. Gizonezkoak nola menderatu badakin bai. Nagusia ikusi ala limurtu den... *(ajolakabe)* Te, te, te! Ni berriz Ezekieltxo ikusteko amorratzen natxionan. Ik D. Abrahm gutiziatzen dukan aña... *(bijoaz sukaldera)*

ABRAH: *(kaleko atetik itzulirik amultsu agurtu beza Agar)*. Agar! Emen ziñala banekien... Egun auetan jendea badugu beti etxean, ta ez dut zurekin egoteko betarik izan.

AGAR: Tarte bat arrapatzearren ortxe egon natzaizu sukaldean itxoiten; beste iñor etorri aurretik lasa itzegin zagun.

ABRAH: Ondo, oso ondo derizkiot. Agar... Ez uste izan ni zu ikusteko irrikitzen ez nengoanik. Andrea nuana bizirik zegon bitartean, ordea, naiz aspaldi arras eri, ez zan egoki ni zuregana joatea.

AGAR: Konprenitzen dut, bai. Orain emazte zenuena il zaizun ezkero, ta Jainkoak daki ta nik ez niola gaitzik opa, bestela artuko nazula sinetsi nai nuke... *(elkar laztandurik)*.

ABRAH: Bai, Agar ez beldurrik izan. Ez aaztu ordea, etxe au nerea ezik seme-alabarena dala ta biok oraindik ez gaudela ez legez eta ez elizak ezkondurik.

AGAR: Orretara nentorren, ain zuzen ere, ea elkarren senar-emazte egiten geran.

ABRAH: Bide ortatik joateko asmotan naiz, baiñan zerbait itxoin bearko dugu.

AGAR: Epea luzegia ez baldin bada.

ABRAH: Ez, ez, alik eta laburrena. Bearrezko dana. Seme alabari dagoaneko itzegin diet eta ez dute ain gaizki artu... Ondoegi ere ez, baiñan tira... D. Isai ere emen zan eta gauzak aurreratzen dijoaz...

AGAR: Eta nun bizi bear dugu. Etxe ontan bertan?

ABRAH: Orrekin izango dugu zenbait ostopo ta eragozpen. Nere seme-alabak ez dute gurekin guztiok batean bizi nai. Etxe kontua antola diteke...

AGAR: Eta zer egin bear dugu Ismaeltxo gure semearekin?

ABRAH: Korapillo ori askatzen zaillago izango zaigu. Seme ori legezkoa ez izateak traba aundia sortzen du... eta ezin ekarri izango dugu etxe ontara bizitzera... Nere seme-alabak ez dute ori aditu nai. Familiaren izen onarentzat lotsakizun litzakeala eta... abar. Beraz, aurten Ismaeltxok Jesuiten ikastetxean jarrai dezala. Gerora erabakiko dugu beste zerbait...

AGAR: *(kopetillun)* Nere sabel eta erraietatik sortutakoa ez al da bada zure seme?...

ABRAH: Ez dizut beñere ukatu. Garaiz nere familia-izena emango diot. Bitartean itxoin dezagun...

gaztea da ta. *(norbait datorrela oarturik itzbidea etenaz)*

AGAR: Ea gizon egiñik dago, ezaguera argikoa bere urteetako. Nerorekin ekarria dut ikus dezazun.

ABRAH: *(arriturik alkitik jeikiaz)* E? zurekin ekarria duzula. Nun da?

AGAR: Ez ikaratu. Lengusuaren etxean utzi dut ikustea joan nai bazenduke.

ABRAH: Jendea dator eta emen ez dugu itzegiteko libertadearik... *(nora jo ez dakiala)* Sukaldean lasaiago jarraituko dugu naiz ez izan nagusi batentzat leku egokiena. Goazen! *(sukalderuntz abiturik)*.

AGAR: Etxe aberatsetan ez da leku segurugorik. An dugu Sofi... ta ondo gordeko gaitu.

ABRAH: Ez da komeni nere seme-alabak zurekin ikus nazaten. *(bijoaz)*

(Kaleko atetik Beke ta Ezekiel sar bitez).

EZEKIEL: Aitaren aterakaia entzun duzu. Ikusia zegon. Ezkondu egin bear duala.

BEKE: Ez da gauza berria. Bidezko da.

EZEKIEL: Ezkondu, ezkondu, ori da gutxiena! Eta ondoren datorrena?

BEKE: Ondorengoa ez dakigu. Oraingoak ematen dit naiko kezka.

EZEKIEL: Leengo, oraingo ta gerokoak! Betiko leloa. Ezkondu ala ez, nik Beke «sasikume» ori ez dut anaitzat ezagutuko.

BEKE: Ez da nere gogoko. Lotsa da familiarentzat. Or ariko da jendea marmarizoan. Baiñan Jainkoaren ta gure aitaren seme dugu eta Errelijioak...

EZEKIEL: *(Zakar)* Zer Errelijio ta zer Elizondo! Aitaren okerrak guk nozitu bear?... Gure kaltean?... Ez. Etxeko ondasunak gu bion artean banatzeko ordez iru zati egingo dira. Aitaren etxekoandre berriak *(nardaz)* «señora» biurturik zurrupatuko duana konta gabe. Diru ondamen ederra izango dugu.

BEKE: Diru konturik besterik ez balitz. Erdi-anai ezagutzen dugula maitasuna artuko diogu. Berea eman bear zaio.

EZEKIEL: Utzi itzazu maitekeriak alde batera Beke! Toki onean gaude. Bi neskameak Sofi ta Agar ondo konponduko dira gure kaltean.

BEKE: Ala izanik ere ez dugu gure ondasunik galduko. Eta D. Isaik esan digun bezela Ismaeltxo anaitzat artzera bearturik gaude.

EZEKIEL: Oraingo apaizak oso «progresista»k dira. Urrena Testamentu Zaarreko kondairan zer gertatzen zan galdegin zaiozu. Bitartean Babiloniako aizea artzera noa. Agur arreba!

(Bijoa kaleko atetik).

BEKE: Alperrik da zuri ezer esatea ta zoaz ondo anai! Etxea ez zaizu gañera eroriko! Ni emen geldituko naiz...

EZEKIEL: *(Atetik)* Bai, senargaiaren zai...

BEKE: Nik ez dut ezer Narzizorekin baiñan itxoingo diot...

(Atea itxi ta Ezekiel joandakoan Beke gogoeta egiñez, zutik antzetokiaren erdian zerurontz begira ametsetan bezela geldi bedi OIALA astiro jeisten dalarik).

* * *

Une berean Koru-saillaren abestaldia entzungo da Salmo baten itzak garbi entzunez:

«Jauna nere biotz au arro ez dago
begiok ez dauzkat bear baño gorago.
Ez nabilla gauza aundien atzetik
Ni baño gorago daudenetik».

III. EKITALDIA

(Oiala jasotakoan Beke azken ekitaldian gelditu zan toki berean dago, zutik begiak goruntz ametsetan bezela. Abesti edo musika doñua entzun arazi ditezke. Amaitutakoan Beke bere baitara biurtzen da).

BEKE: Ametsetan al negon edo bizirik. Mundu ontan?...

SOFIE: *(sukaldetik sartzen dalarik)* Gure etxean, nik uste. Eta zurekin bakarka itzegiteko gogoa baneukan. Gogoa ezik bearra ere bai. Au da txoria eskura etortzea.

BEKE: Sarean arrapa nai al nazu edo zer?...

SOFIE: Ondo arrapaturik ote zauden Señorita, beste eiztari baten sarean. Eta atrebentziarekin, ni nor ez banazu zuri agintzeko gabiraiaren atzaparretatik libra nai zinduket. Ai ene usotxo!

BEKE: Itzegin itzegin aspaldiko ipuia dirudi-ta, polita noski...

SOFIE: Ez da ipuia ta ezta polita ere... Egia... egia garratza baizik. *(Oso ben eta goibel)* Asiera emateko... ni etxe ontatik banoala.

BEKE: Baiñan Sofi. Ondo entzun al dut. Ez da egia izango... Ba zoazela? Ama ilda zure bear aundienean gaudenean joan. Ez da egia izango.

SOFIE: Emendik aurrera etxe ontan aldaketa franko izango da.

BEKE: Ez duzu ori esango gure Aita Agar-ekin ezkontzera dijoalako.

SOFIE: Ori ere badago tartean, jakiña. Zer egingo zaio, bidezko da. Ezin eraman dudana ordea au da: zuen aita Agarekin ezkondu ta gero, semea duten Ismaeltxo koitadoa ez etxe ontan bear bezela artua izatea. Gizarajoak ez du ori merezi *(malkoa dariola)*.

BEKE: Ez orrela jarri, Sofi. Familia arteko gauzak antolatu bitartean ez. Gero...

SOFIE: Gero ez, orain baizik! Agarri ta nagusiari esan diet. Ismael ez ba dute etxera ekartzen ni aterako naizela kanpora. *(Zingurinka)* Ismaeltxo! koitadoa...

BEKE: Emakume! ezta mutillaren amona baziña ere! Gutxirekin mintzen zera. Gogorragoa izan da

neretzat ama galtzea... Au aski ez dala aitaren ezkontza berria... badakizu zeñekin... onartzea. Ismael anaitzat ezagutzea ezer gutxi da. Familia barruko gora-berak lotu bear ditugu senide artean ez dedin asarrerik sortu.

SOFIE: Onela baldin bada isiltzen naiz. Zu biotz onekoa zaitugu ta txarkeririk egiteko lain ez zerala.

BEKE: Lasa zaudeke ta etxean geldi zaite, orain patxaran eseriaz. *(musu emanez eserarazten du)*.

SOFIE: Itzbidean gaudela utziko al didazu barruan gelditu zaidan beste zertxobat esaten? Biotza lertuko zait bestela.

BEKE: Jesus milla bider! Kontuz zure miokardio dala ta. Naikoa izan genduen gure ama gaixoarekin. Esan, esan!

SOFIE: Ba... *(beldurti)* Ez nuke «metitu» nai, bainan zure inguruan dabillen... eiztari ori ez zaizu komeni. Ez da zuk merezi duzuna, naiz mediku izan.

BEKE: Zer bada? Zerbait gaizto egin al dizu?

SOFIE: Gaizto... gaizto... Ez al duzu naikoa zure ama ez sendatzea? «Igualeko» zainduko zuan mediku zarrak, D. Simonek... D. Narziso orrek ez du sona onik. «Ye-Ye» erdi «señorita» orietakoa

ote dan fama du errian... Likeskiri utsa! Orra uste gabean itza atera! Eta isil nadin geiago esan gabe. *(isilunea)*

BEKE: *(Atsbeeren luze bat egin ondoren eta naigabeak ematen diola besaulki batean erdi etzaten da)*. Ai ama! Leengoaz gain au falta zitzaidan, arantza berri bat biotzean...

SOFIE: Ori ez dabil, ez zure biotzaren atzetik... zure diruaren billa baizik. Zure edertasunak berak ere ez diola ajola aundirik ematen esango nuke.

BEKE: *(pizkorturik)* Jainko maitea! argitasuna eta kemena eman izkidazu estuasun illun ontatik ateratzeko.

SOFIE: Ateraziko zaitu bai D. Isai erretore jaunari galdegiten badiozu. Onek emango dizu gazte orren berri zeatza. Eta guztia ez badaki, errian zer esaten dan entzutea besterik ez duzu.

BEKE: *(zutik eta adoretsu)* Bai Sofi, nik ere leenbaitleen egi guztia jakin nai dut. Askozaz obe bait da zalantzan egotea baño.

SOFIE: Ez dut uste zurekin ezkontzen baldin bada zoriontsu egingo zaitunik.

BEKE: Arren eta arren, Sofi, emen aitatutakoa ez zaiozula iñori esan. Alik eta aguroena D. Isai ikustera joango naiz.

SOFIE: Ederki egiña! Ura apaizaz gañera, konfiantza-konfiantzazko gizon isila ta zurra bait dugu. Zaude lasai. Nik nere sukaldean ez dut txintarik aterako... neronen mingaiña jango badizut ere. Zu, amorioaren sasoiean zaude. Ni... lanean zaartuko naiz.

(Txilin otsa entzun bedi. Sofie ateruntz dijoa nor dan ikustera. Zeletan egiñez D. Narziso dala nabaitzen du ta burua itzuliaz onela dio).

... Beke... Otsoa aitatu ta... otsoa azaldu. Zera... D. Narziso mediku gaztea duzu...

BEKE: Iriki zaiozu atea. Sar dedilla. Zer bada? Ez nau ikaratzen. Onela, aurrez aurre itzegingo diot.

SOFIE: Ori da kementsu izatea! Ekin orrela. Nere bearrik baldin baduzu sukaldean egongo naiz zai, bada ezpada...

(Sofie atea zabaldu ondoren bijoa sukaldera. Beke gelditzen da bere lekuan etorri berriari itxoiten).

NARZI: *(Sartuaz)* Arratsalde on! Nola zaude andereño? *(eskua emanez)*.

BEKE: Ainbestean; txarrean ondo, esan oi dan bezela.

NARZI: *(Koipejario ta eztitsu)* Itxura eder orrekin zoragarri. Ai zu... Beke!... Beke!... Beketxu maitea!... Poz-pozik nago, emen zu bakarrik arkitzeaz...

BEKE: *(eskua libraturik, otz eta motz)* Zertarako?

NARZI: Ori galdera! Ba... umezurtz zera-ta elkarrekin egon gaitezen.

BEKE: Sarritan, umezurtz izan eta bakarrik egotea zenbaitekin egotea baiño obe. Gaur ez daukat lagun artean jarduteko gogo aundirik. Aita berriz ezkon dedinean agian besterik izango da. *(arduragabe)* Ez dizut esan eseritzeko, barkatu.

NARZI: Zure ondoan egon ezkero zutik ere ondo nago. *(Isilunea)*

BEKE: Eta zer geiago?...

NARZI: Bada... zera, esan duzuna zuen aita ezkontzera dijoala ta zer derizkiozun entzutera edo...

Gauza gogorra nolanai zuentzat. Zaartu ta maskalduta gero ezkontzea... Norekin eta askozaz gazteago ta neskame etxean izan zenduten Agar... eme galdu orrekin.

BEKE: *(Asarre)* Ez dizut utziko nere aita eta Agarrengatik gaizki esaka ari zaitezen. Arrotz bat zera eta ez zera iñor etxe ontako gauzak juzgatzeko. *(Oso ben buru itzuliaz)*.

NARZI: Ez gaizki artu onez esandakoak... Beke. Zu konforme bazaude isilduko naiz. Zure anai Ezekielek esandakoa dakit eta onek asto beltzarenak esan dizkit Aitaren ezkontza orrengatik. Eta geiago danok elkarrekin etxe ontan bizi nai dutelako «sasikume» ta guzti...

BEKE: Itxi zazu ao ori! Mutil gizarajoak ez du errurik. Zu bezelakoen gizartea da obendun...

NARZI: Eta zure aitaren legezko seme-alaba pagatzaille, ta zu lenengo, ajolarik ez bazaizu... Aitak ezkontza berriarekin ondasunen erdiak jango dizkitzute. Eta zure «doteari» puska ederra kendu...

BEKE: Eta zuri zer? Nere egitekoa da eta ez zurea...

NARZI: Gaur oso arantzadun eta latz arkitzen zaitut. Ez zera leengoa nik ezagutu zindunekoa... Beke maitagarri ua...

BEKE: Zioak ere baditut. Orrengatik nigandik urrun zamar ibiltzea izango duzu onena. Ni ikusi ta agurtu nazu ta orain zure beste «bezeroak» maitagarriagoak noski ikustera bazoazke... *(gelaruntz abiturik)* Urren arte, beraz.

NARZI: *(zur eta arri)* Beke! kiriotatik gaxoturik zaudela uste dut. Nik errezeta on bat sendatzeko egin nezaizuke...

BEKE: Ez dut orren bearrik aize garbia artuaz sendatuko ditut. Zoaz bada ta eskerrikasko.

NARZI: Egurasten ere lagunduko zaitut *(beso ta gerritik eldu naiez)* Goazen!

BEKE: Ez nazazula ikutu. Ondo joan *(arin gelan sartzen da)*.

NARZI: *(Amorrazita uxatu dualako)* Ez didazu berriz esango. Badakit bidea... *(zalapartan alde egin beza kaleko atea indarrez itxiaz)*.

(Atearen karranka-otsa entzunez
Sofie eta Agar sukaldetik ager bitez).

SOFIE: Orixe zan atearen otsa! Jauntxo ori leun ibilli da.

AGAR: «Señorita» Beke ere gelara joana da.

SOFIE: «Bikotea» laister deseginda. Aserreturik, jakiña. Zer demontre! nik aldez aurretik señoritari gauzak garbi esan bai dizkiot.

AGAR: «Lixua» ederra zurea. Beti izan zera zalea.

SOFIE: Bai, Gobara ez da izan makala. Bear bezelakoa. Gure andereñoak bereak eta bi entzun zizkiñan. Eta orain Agar, nagusia gure alde daukagula ire ezkontzarekikoa, leenbaitleen garbitu bear diñagu Ismaeltxo aazturik utzi gabe. Koitadoa!

AGAR: Eta ez al da izango aguroegi.

SOFIE: Zenbat eta agurogo ainbat errezago. Zirt edo zart! Burnia gori dagonean orduan eta biguñago maniatzen den...

AGAR: Tuntun onek, ordea ez daki malluarekin nundik jotzen asi. Orain bertan ez dakit emen gelditu ala joan; mutilla ekarri ala ez.

SOFIE: *(Agintari)* Ire lekuan nik artuko diñat erabakia... Begira! Ua instantean Pilomena lengusuaren etxera, bai, denbora galtzeke. Eta ager adi bereala emen Ismaeltxorekin.

AGAR: Lotsa ematen dit ordea ezkondu gabea izan eta...

SOFIE: Ama batek ez din beñere bere semea agertzeko lotsarik euki bear. Eta are gutxiago aita duanaren etxera azaltzeko. Ismaeltxo! koitadoe! Iñoren aurrean kupirik gabe agertzeko mutil ederra ez badugu bada! Alajaña! Makiña batek artuko luteke!

AGAR: Zure esana egingo dut Izeba. Banoakizu billa *(abiturik)*. Eta etxe ontako seme-alabak ez badiote ongi etorri gozorik egiten zurea izango errua.

SOFIE: Errua ta arrokeria. Biak! Ez da beldurrik. Etxe au ondotxo ezagutzen diñat. Bertan ogeitamar urte zeramazkiñat eta pentsa!

AGAR: Emen zuk agintzen duzula ikusirik dago. Nagusiak baño geiago.

SOFIE: «Aldiz, aldiz, sukaldaria zaldiz», Agar. Orrengatik oa astirik galdugabe mutillaren billa. Ez zan geiegi itzegin bidean.

AGAR: Ez, ez, ez naiz iñorekin gelldituko. Banoa *(abiturik)* atetik zalantzan burua itzuliaz. Eta izeba... Ismaeltxok ez baldin badu etorri nai?

SOFIE: Etorri ez? Besotik eldu ta ekarri.

(Bijoaz Agar kaleko atetik eta Soli sukaldera).

* * *

ABRAH: *(Abrahm etxe barruko beste gela batetik datorrela)* Sofi! *(erantzutzen ez diotela sukalderuntz dijoa ta berriz otsegiñez)* Sofi!!

SOFIE: *(Barrendik)* Nagusi!

ABRAH: Ezekiel señoritoa etxean al da?

SOFIE: *(Sartuaz)* Orrenbeste sartu-irten dabil gaur emen. «Beke» atera dala badakit, Ezekiel bere gelan gelditu ote dan nago; edo garajean.

ABRAH: An baldin badago esaiozu etortzeko paper batzuek erakutsi bear bait dizkiot.

SOFIE: Bereala, nagusi. Deitzera noa... *(Barrengo ateruntz joan eta begiratuz)*. Orratx! Ez zan urruti ta ez dut deitu bearrik. Badator. Kalerako moduan ain prezixo...

ABRAH: Ondo da Sofi. Zoaz orduan zure eginkizunetara.

SOFIE: Bai jauna, bai *(joanez eta albora mintatuz)*. Ez dut isil-konturik entzun nai. Bestela ere asmatuko ditut nik *(Begiarekin keñu egiñez) (bijoa)*.

* * *

ABRAH: *(Mai aurrean eserita jarririk an dauzkan paper batzu arakatzen asten da Ezekiel sartu dala oartu arte)* A! Ezekiel! etxean zauden ezkero itzegin nai dizut ama zanaren testamentua irakurtzen dugun bitartean...

EZEKIEL: Kalera ninjoan bada, oraintxe. Lagunak zai dauzkat.

ABRAH: Geldi zaitez pixka batean, mesedez denbora gutxiko gauza da-ta.

EZEKIEL: *(Urduri batetik bestera ibilliaz)* Testamentuak paper luze ta gogaikarriak izan oi dira. Illunak, aditzera dudanez...

ABRAH: Ez bada. Zure ama zanarena oso duzu labur eta argia. Eta Agarkin ezkontzeko nere asmoaz zerbait aitatzen du. Irakur zagun!

EZEKIEL: Ez daukat irakur bearrik. Ori bagenekigun. Zuk esatea aski da. *(entzungor)*

ABRAH: Zure amaren ordenuak nere itzak baño geiago balio du. Eta ark agintzen dit. Agarrekin ezkondu ta arengandik jaio zan Ismael semetzat artzea. Zuen amarengandik sortu ziñaten seme-alaba-Beke ta zuek añako eskubide berdiñekin. Au da *(Testamentu agiria eskuan daukala)* emen jarria dago zure amaren azken naia.

EZEKIEL: *(Erremindurik)* Zertarako bear dut irakurri ta entzun geiago? «Sasikumea» gure berdiña baldin bada. Alperrik nago emen. Ez naiz geiago etxe ontan biziko. Banoa betiko!

(Bat batean abiadura artu ta igesi dijoa kaleko atetik).

ABRAH: Baiñan Ezekiel! *(alkitik jekirik)* Izan zaite gizon eta ez ume. *(Atzetik dijoakio ateraño geldi arazte ote duan. Eziñean naigabeturik itzultzen berriz bere maiera. Burua bi eskuen artean eta ukalondoak mai gañean tinkaturik une batez ala egongo da)*.

SOFIE: *(sukaldetik sarturik)* Nagusi, bakarrik aguro utzi zaituzte. Ezekielek dagoaneko alde egin al dizu?

ABRAH: Bai! eta betiko! esan duanez... Mingarria aita batentzat!

SOFIE: Itzuliko da, bai. Nun arkituko du onelako etxerik? Baldin badijoa ere or geldituko zaizu beste seme Ismael...

ABRAH: *(Goibel)* Seme bat galdu bear al da bestea irabazteko? Au ote da nere gaizki egiñaren ordaiña?...

SOFIE: Ezin bada guztion gogora jardun. Asarrea joango zaio ta guri ere bai naigabea. Ez gaituzu mundu txarrean bizi...

(Nagusia, jaramonik egiteke, kezkati ta bekozkoz jarraitzen duala oarturik).

... Buruko miña kentzeko Tia egitea nai al duzu, nagusi?

ABRAH: Naiko «tia» artzen ari naiz aspaldi, traguxka garratzak, eta oraindik artzeko dauzkadanak! *(zutituz)* Pozik sartuko nintzake oean astebeteko loa egitera. *(Nagiak atereaz)*

SOFIE: Sinesteñ dizut. Loak ez du beñere kalterik egiten eta bai atseden ematen.

ABRAH: Banoa lo kluska bat bederen egitea. Ta norbait galdezka baldin badator ondo ezik nagoala esan. Aditzen? Pakean utzi nazatela.

SOFIE: Ori nere kontura, nagusi egon zaite lasai, soseguz...

ABRAH: *(abiturik)* Ez da gauza erreza baiñan aleginduko naiz. *(bijoa gela batera)*

SOFIE: *(Bakarrik berekiko)* Egun txarra du gizarajoak lo egiteko. Esna ta erne egonda ere etxe ontakoak badugu aski lan. *(Txilin otsa entzunez)* Zer esaten nizuen?... Txilin lotsagabea! Beti norbait bada ate joka! *(Atera zabaltzera bijoa ta D. Isai ta «Beke» dirala ikusirik ongi etorria egiten die)* ... Ez nuan uste D. Isai, berriz etxe ontan ain aguro ikusi bear nuanik.

D. ISAI: Ez nik ere. Gizonezkoek bat uste eta emakumezkoek bestela agintzen, ordea...

BEKE: Egia da, nik etorri arazi dut. Berak gerorako utzi nai arren, biarko edo... Ez, neronekin etorri da.

SOFIE: Etxe ontan edozein garaitan ongi etorri egiten zaiola badaki D. Isai.

BEKE: Gure etxeko naaspilla antola bearra dagoala esan diot. Oraintxe bertan eta ez da goizegi. Bidean aitatu diot nere senargai izan nai zukean

orrekin erabat ausi dudala. Ez dut arengatik ezer geiago jakin nai. Elkarri emandako itzak aizeak eraman ditzala. ta Kito!

SOFIE: Ederki egiña! *(alai)* Beste galai oberik ez zaizu faltako...

BEKE: Edota... monja sartuko naiz...

D. ISAI: Ori baduzu bidea. Jainkoari eskatu. Egizu otoitz!

BEKE: Bidea, bidea... Batek ba al daki nora joa ta zer eska?...

(Sofie sukalderuntz dijoa eta bitarte ontan D. Isai ta Beke isilpeko elkarrizketan beste ertzean diardute. Ontan daudela sukaldean zai zeuden Agar eta Ismael, Sofiek barrura sar arazten ditu).

SOFIE: Emen dituzute Agar eta Ismaeltxo *(auei bultzegiñez)*. Sar zaitezte, sar, etxekoak zerate-ta.

AGAR: *(Ismael semea eskutik arturik)*. Arratsalde on! Lotsa ere ematen dit zuen aurrean agertu bearrak. Baiñan nozpait ordua eldu da ta emen gaude ezagutu gatzaitzuten. *(mutillari)* Ea Ismaeltxo, agurtu itzazu Apaiz jauna ta andere-

ñoa... *(D. Isai ta Bekek bat bateko zirrada gaindurik arpegi alaiz eta oi diran diosalez agurtzen dituzte)*

D. ISAI: Beke? Ara jainkoak aguro entzun zure deia.

SOFIE: Zera... Testamentu zaarraren kondairan bezelaxe...

BEKE: Nik ez dut itzik egiten asmatzen... Alare *(ama semeari)* Aurrera! Aurrera! esango dizuet. Agar... zuk lendanik etxea ondo ezagutzen duzu. Emengo berri baduzu.

AGAR: Nik ala uste... zuek aur ziñatela etxe ontan sartu nintzan.

SOFIE: *(Bekerik)* Señorita! Ikus zazu, ikus Ismaeltxo zer nolako mutil ederra egiñik dagon. Au izango duzu anai berria. Elkarri musu emaiozute.

(Elkarrengana joanez musu ta laztanez).

SOFIE: Eta D. Isairi eskuan mun egiozu...

ISMAEL: Ez da «jesuita» izango? *(Guztiok paregiñez)*

D. ISAI: Alatsu mutil. *(Sofieri)* Zer reboluzio egin duzu emen?

SOFIE: Iraultza besterik ez D. Isai. Eseri bedi patxaran eta jakingo ditu jakitekoak.

D. ISAI: Etxe-barruko iraultza. Karanba, karanba! eseriko naiz zure astinaldia lasa artzeko. *(eseririk)* Apaizgoan urte askotxo daramazkidalarik, ez dut ikasi emakumezkoen gora-bera ta matrikuluak konprenitzen.

SOFIE: Ez da arritzeko. Berorri gizona da-ta. Gai ortan konfesionarioan ez bait dugu egia oso osorik esaten.

D. ISAI: Aski duzute pekatuak soil-soilik aitortzea. Gañerantzeko berriketak isilik gordetzea obe.

(Agarek mutillari bazterrak erakusten dizkion bitartean besteak elkarizketan darraite).

BEKE: Emen esango dizuet guztia jakin dezazuten eta zuk batez ere D. Isai. Nere atzetik zebillenari uzkur egin diodala. Ez dago izena aitatu bearrik...

SOFIE: Mediku gaztea... tira. Erdi gizon eta diru zale osoa. Bai D. Isai. Gure «señoritaren» zoriontasuna egingo ez zukeana... Bai «Beke», Beketxo alaba bazindudanez itzegiten dizut *(negar egin ta musu ematera joanez)*

BEKE: Ama galdu dudala, aren ordez ematen dizkidazun laguntza ta aolkuak pozgarri zaizkit. *(Agar eta semearengana bilduaz)*

D. ISAI: Ala gerta oi da munduan. Ez da sekulan itxaropenik galdu bear. Lantze txarrenetan ere Jainkoak ez bait gaitu umezurtz uzten.

SOFIE: Gure «Beke» ez beintzat. Marikatxa baten atzaparretan erortzen utzi? Zer derizkio D. Isai. Mutilla neska-zale ta neskatxa mutil-zale izatea legezkoa da. Baiñan gizon... gizakoia? Utikan! Pizti txarra matrimonioarentzat... Sodoma ta Gomorra zer izan ziran bada?...

D. ISAI: Sofi! zuk izan bear zenduke apaiz... edo «sibila» gutxienez. Testamentu zaarreko igarleak bezela mintzatzen zera. Asko dakizu. Nun ikasi dituzu?

SOFIE: Lardizabalen Testamentu zaarreko kondairan irakurriak ditut; eta zuri sermoietan entzundakoak. Ez dut beste iñongo obisporik ikusi. Zuk bear zenduke apezpiku...

D. ISAI: Ez zaiozula nere buruari ain zama aztunik erantsi. Erriko erretore soil izateak ere ba-dizu eskubete istillu. Ai zu! zu!

BEKE: *(Berriz D. Isai ta Sofierengana urbildurik)* Nola nai ni ez niteke luzaroan etxe ontan bizi ta gertatzen dana aitari esango diot. Oraintxe gañera!

SOFIE: Ez, itxoin zazu Beke. Aita lotara joana duzu, siesta pizka bat egiten ari da eta ez deitzeko esan dit.

D. ISAI: Arrazoi du, Beke. Zure erabakiak otz-otzean ondo ausnartuta artzekoak dira. Ez bat-batean ta ez itsumustuan. Iñolaz ez naigabepean zaudelarik. Ainbeste ez bear gertatu dira emen. Goibeltasuna konseju-emaille txarra duzu. Illunpeari argitasunak darraikio. Gauari eguna. Ta onek eguzkiaren argi izpiak dakarzki...

SOFIE: Amen! Ori da sermolari bikaña izatea. Ori! Nik ere zerbait esango nuke... *(Txilin otsa entzun bedi)* ...txilin berritsu orren otsak lagako balit. Orrek salatzen bait nau neskame ta atezai bat besterik ez naizela... *(ateruntz bijoa)*

BEKE: Ez genduke orain bixita berririk bear. Ez digute bakarrik itzegiteko betarik ematen. Esan dizut, ez ezkontzea erabaki dudala.

D. ISAI: Mutil ori ez ba zaizu gogoko ziñez maiteko duzun besteren bat sortuko da... Orain ez bada geroxeago.

BEKE: Ez ori eta ez beste iñor; Ez orain eta ez... gero. Etxe ontatik joateko gogoa egin zait.

D. ISAI: Orrengatik gelditu egin bear duzu. Egiozu kaso Ismaeltxori. Bizimodu berri bat agertuko dizu.

AGAR: *(Semearekin bazterrak ikusten dabillela)* Zaude geldirik Ismaeltxo. Ez ezer ikutu.

BEKE: *(mutikoarengana urbilduaz)* Emen bizi nai al duzu, mutil?

AGAR: Esaiozu bayetz, zozoa! arreba Beke duzu-ta...

ISMAEL: Bai... *(zalantzan)* Señorita... Arreba...

AGAR: Beke, Beke!

BEKE: *(Mutikoari musu emanez)* Au kutuna au!...

D. ISAI: Ikusten nola Jainkoak gauzak errezten dituan... aurren bidez.

SOFIE: San Juan Bautixtak aurretik bideak prestatu ta gero, bai...

D. ISAI: Goikoak agintzen du beti. Berak bere bideetatik garamazki eta aren borondatera makurtu bearra daukagu guztiok!

BEKE: *(Agari)* Orrengatik, bada Agar, nere aitarekin ezkondu bear duzu eta leenbaitleen etxe ontara bizitzera etorri. *(Bazterrak ikusten biurrike-*

rian dabillen Ismaeli belarritatik tiraz) Eta zu ere bai Ismaeltxo, baiñan ez neri ezer puskatu.

AGAR: Aditzen Ismael! egon zaite geldi! *(Bekeri)* Ni gertu nago nagusiaren esana egiteko.

SOFIE: Eliza-ama santak artuko zaituzte, bai. Apaiza emen duzute bedeinkazioa emateko.

D. ISAI: Zuek elkarri bayezkoa eman ezkero, apaizak ez du besterik egiten testigutza baizik... senar-emazte bezela bizi zaitezte... emendik aurrera.

SOFIE: Bayezkoa emateko nagusia falta dugu. Otsegitera noakio. Ez esnatzeko esan dit baiñan...

D. ISAI: Uste al duzu lotan egongo danik? Geienaz begiak itxita atseden artzen.

SOFIE: Laister ikusiko dugu *(gelaruntz joanez)* Azkar esnatuko dut nik, baldin baitere!... *(barrura bijoa)*

BEKE: Esna dedinean geienik arrituko duanak etxean orrenbeste jende ikustea izango da. Uste ez zituanak, gañera.

D. ISAI: Guztiok zerate etxekoak, ni ezik.

AGAR: *(kezkati)* Asarretzen ez bazaigu! Ismael semea emen arkitzea ez zaio apika ondo irudituko. *(semeari)* Zu «txintxo» egon eta isilik iñork ezer galdegin arte.

BEKE: Onek ez du errurik, bere aitaren etxean bait dago, gu beste senideok añako eskubidez. Poza ar bear luke!

ISMAEL: Ni pozik nago arreba!

AGAR: Alegindu zaite, bada ondo portatzen, aita-ama lotsa ez ditzazun eta ezta apaiz jauna ere.

D. ISAI: Ez, ni, ez gu apaizok, ez. Gurasoak, gurasoak zerate seme-alaben etorkizunean erantzunkizuna leporatu bear duzutenak. Zaarren ezpañetatik entzun oi diran mintzoak dira: gazteok biurri, ezigaitz, arro, ezaxola, aundinai ta alper datozela; lanik egin baño geiago jolastu nai dutela; dirua beren lan eta nekez irabazi aurretik txautzaile ta etxekalte dirala. Egia izan diteke, baiñan gurasoek bere barruntea azter dezatela, ea beren eginbearrak ongi bete izan dituzten. Eta ar zatela gogoan seme-alabok jaiotzetik, Jainkoak emandako Justiziaren sena badakarkitela ta maitasunez obekienik ezitzen aal dituzutela.

BEKE: Sermoi borabilla atera zaizu D. Isai...

D. ISAI: Orratx! uste gabean. Apaizak kalean ere ezin ken elizako oitura... Kutsua...

AGAR: Ni bezelakoak ikasteko premian gaude, apaiz jauna. Eta nere semea ere eskola ortan azitzea nai nuke. *(semeari!)* Entzun aal duzu, maite?

ISMAEL: Bai, amatxo. Emen geldituko naiz. Ez dut berriz Jesuitetara interno joan nai...

BEKE: *(Parregin eta Ismaeli musu emanez)* Ja! ja! ja! Ez iñor kaiolara gogo onez joaten. Kanta zaarra dionez: «Libertadia zeñen eder den»! *(elkar laztanduz)*.

(Gelatik sar bitez D. Abrahm eta Sofie).

BEKE: Aita! Sermoia entzuteko garaiz zatozte. D. Isai etxean dugu-ta.

D. ISAI: Nere itzaldia bukatu dut. Aurrerantzean egintzak bear dituzute.

SOFIE: Orixe bera esaten nik ere. Ondo esna ta erne zegon bai gure nagusia, Alajaña!

ABRAH: Guztia entzun dut. Ez bait dut batere lorik egin. Etzanik egotea besterik ez! Buruko-min eta kezkaz...

BEKE: Orain biotzaren txanda dugu. Goazen guztiok elkarrekin!

D. ISAI: Alabak, zuzen esana Abrahm...

ABRAH: Eta aita dan onek entzungor egingo ez diona. Baiñan...

BEKE: Zer, aita? *(Abrahm eta Agar erdian jarri bitez; Beke ta Ismael aldamenean dituztela eta D. Isai ta Sofie mutur bakoitzean)*.

ABRAH: Emen... nere erruz seme bat falta zaidala... Ezekiel!

SOFIE: Beste bat irabazi duzu ordea. Ardi galdua artaldera bilduko da. Nun arkituko du berotasun eta bazka oberik?

BEKE: Nik ere ala uste dut...

D. ISAI: Orretarako ez dezala iñork leengo erru ta obenik aipa... Gauza zaarrak dira. Orain Testamentu berriaren argitan gaude Kristo etorri zan egin zagun alaitsu aren Naia!

(OIALA erortzen asten da ta batean Koru-saillak salmu- abesti, doñu ta dantzaz antzekizuna bukatzen da).

«ARA, JAINKOA DA NERE OSASUNA LASAI-NAGO; BA! DOA NERE BILDURRA JAUNA BAITA NERE INDARRA TA KEMENA BERA GERTATU DA IAREGIN NAUENA».

(Isaias (Is 12, 1-6)

AZKEN-SOLASA

(Zuzendaria erdira atera
OIALA berriz altxatzen dala
oneko itzneurtuak esango ditu):

«Jaun-andreak, eskerrikasko
antzekizun ontan
Adi egon zeratelako

Gaia antziñakoa izanik
Gaurkoa bezela
Ikus-entzun dezutelarik

Ez baduzute ar atsegin
nere errua da
Ez dugulako obeto egin.

Urrena saiatuko gera
orain ausartzen naiz
Zuei barkapena eskatzera.

Baita txalo-jotze bat ere
Joku-lagun danoi...

(Izenak aitatutakoan ager bitez Publikoa agurtzera)

Abrahm... Ezekiel... Beke... Sofi... Isai... Narziso...
Agar... eta Ismael
Jaun andrea!:

Gaizki esanak barkatu
eta
Ondo esanak onartu
GUZTIOI GABON!!!!

AMAIA